

Karrikako jaietara gonbidatuta daude auzotarrak eta herrikideak

Ostiralean hasi eta igandera bitarte ospakizun ugari Andoaingo auzunean.

Andoainera uda iristearekin batera, auzo gehienak jaietan murgiltzen dira. Asteburu honetan Karrikako txanda izango da. Sardin jatearekin eta rock kontzertuarekin hasiko dira, ostiralean. Larunbatean eta igandean musika eta hitzordu gastronomiko ugari. Baita igande arratsaldeko play-back saioa ere. Jai batzordeak herrikideei gerturatzeko gonbite berezia luzatu die.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



Oihane Etxaniz, Ana Gaspar, Leonor Plata, Daniel Fondon eta Ane Roig Karrikako jai batzordeko kideak dira.

Memoria ardatz duen txostena

Andoaingo Udalak euskal gatazkaren txostena landuko duela iragarri du, agerraldi bateratuan.

[ANDOAIN, 3. ORRIALDEA]

Ospakizun beteko asteburua

Karrikako jaiak asteburu osoan zehar ospatuko dira. Bestalde, Kale Nagusian, Txindoki tabernak atek ireki zitueneko 60. urteurrena ospatuko du larunbat honetan bertan. Datak eferidearekin bat egiten du.

[ANDOAIN, 3. ORRIALDEA]

Andoaingo eta Urnietako herriguneak zeharkatuko ditu Donostiako Klasikoak

Uztailaren 29an Andoaingo eta Urnietako herriguneak zeharkatuko dituzte, trafikoan eragina izanik.

Eskualdeko txirrinduzaleak pozarren egon daitezke, errepideko mundu mailako onentsuen tropela etxe ondotik igaroko baita. Aurten antolakuntzak lasterketa bi herrieta-

ko herriguneetatik igarotzea erabaki du. Andoainen Sorabillatik pasako da, Aduna igaro eta gero. Kaleberria eta Goikoplaza zeharkatu ondoren, lasterketa Urnietara aldera abiatuko da. Idiazabal kalea zeharkatuko dute, Hernanirako bidean. Zaleentzat gozamen izango da, baina gogoan izan behar da lasterketak trafikoan eragin nabarmena izango duela. Eskualdeko kirol eragile ezberdinak lanean arituko dira.



Sahara herriarekin elkartasuna



Uda iristearekin batera, Saharako uda jasangaitza alde batera uzten duten haur eta gazteak eskualdera etortzen dira. Andoainen eta Urnietan uda honetan haur bana izango da. Aste hasieran harrera ekitaldia egin zieten bi herrietan.



EGUNEROKOAREN JARRAIPIEN ZEHATZA WEBGUNEAN

AIURRI.eus

Saharako Hanan haurrari harrera udaletxean



Harrera ekitaldia antolatu zioten Hanan haurrari, astelehen eguerdian.

Azken hamarkadatan egin bezala, Sahara aldeko haur batzuk eskualdean igaroko dute uda. Uztailean eta abuztuan zehar bertako klimaz gozatzearekin batera, hainbat mediku azterketa egingo zaizkie. Urnietan Hanan neskato-

ak igaroko du uda. Udalak astelehen goizeko ekitaldian, besteak beste, igerilekura sartzeko txartela eskaini zion.

Argazkian Hanan haurra Udal ordezkariekin ageri da, etxean hartu duen familiarekin batera.

Sanmioletako alkate txikiak izendatu dituzte



2015eko alkate txikien eguneko argazkia.

Sanmielei loturiko lehen albisteak sortzen ari dira, urruti samar diruditen arren. Urnietako Udalak jakinarazi duenez, izena eman

zutenen artean egindako zozketaren arabera, aurtengoan alkate txiki lanetan **Eider Garcia** eta **Eñaut Egaña** arituko dira.

Ur jolasak ostegunean, Gaztelekuan



Ostegun honetan egitekoak dira ur jolasak.

Ekainaren 30erako iragarrita zeuden ur jolasak bertan behera geratu ziren, eguraldi kaskarra zela medio.

Ostegun honetan egingo dute, uztaileak 13, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

Udako jarduera bereziak uztailearen 21era bitarte luzatuko dira. Kirol jarduerak eta irteerak iragarri dituzte. Azken egunean pizzak eta bazkaria egingo dute Gaztelekuan bertan.

Uztailearen 29an Urnieta eta Andoaingo herriguneetan barrena

Donostiako Klasikoa herrigunetik igaroko da



Iazko Klasikoaren irudia. Lehen postuan Purito Rodriguez eta hirugarren Valderde. Tartean irabazle izan zen Mollema.

Datorren uztailearen 29an, larunbatarekin, Donostiako Klasikoa txirrindularitza proba eskualdetik barrena igaroko da. Eta aurtengoan bereziki aipatu beharra dago, Andoaingo eta Urnietako herriguneak zeharkatuko dituelako.

Antolatzaileek datozen egunetan zehaztasun guztiak emango badituzte ere, dagoeneko bi herrietako hainbat talde eta pertsona antolakuntzan laguntzen hasita daude. Izan ere, lasterketa herrigunetik igarotzean, trafikoan eragin zuzena

izango du. Mozketak izango dira lasterketa eskualdean barrena igarotzen den bitartean.

UCI Pro Tour goren mailako proba denez, munduko txirrindulari onenenak bertatik bertara ikusteko aukera paregabea izango da.

Uztailearen 11n goizean egin zuten, Urnietako udaletxean

Udalaren ez ohiko bilkura

Joan zen astearte goizean, Urnietako Udal korporazioak ez ohiko osoko bilkura egin zuen hainbat aztergai eztabaidatu

eta onespina emateko. 2016 urteko kontu orokorren behin betiko onarpena, kreditu aldaketa eta desgaitasunen bat du-

ten adingabe pertsonen familiei diru laguntzak emateko araudia onartzea izan ziren aztergai nagusiak.

Hogeita hamar lagun abiatuko dira Zanpatuzekin, asteburuan

Piriniotara mendi irteera



Astun-Artigues zeharkaldia egingo dute mendizaleek larunbatean, eta La Sarra-Respomuso igandean.

33 lagunek eman dute izena Zanpatuz-en uztaileko asteburuko irteera osatzeko. **Joxerramon Jauregi** da arduraduna, eta taldea Pirinioetako bihotzera eramango du. Larunbatean Astun eski estaziotik abiatuko dira, Ayous aterpetxea igaro eta Bious Artigues-en bukatzeko.

Sei ordu inguruko txangoa da, eta bukaeran Midi d'Ossau erpin dotorea inguratzen da (2.885 m.). Busa hartu eta Pueyo de Jaca herrian hartuko dute atsedean. Igandean La Sarra urtegiko aparkalekutik hiru orduko ibilbidea egingo dute Respomuso aterperaino (2.200 metro). Buelako bidea Arrieletako lakuetan barrena egingo da, berriro La Sarrara iristeko. Ondoren, autobusa aterperaino, bazkaria eta Urnietara buelta, iluntzeko 20:00ak aldera. Bigarren eguneko irteera sei ordukoa izango da.

IRTEERA GOIZEKO SEIRETAN

Larunbatean 06:00etan abiatuko dira Matxoko autobus geltokitik. Izena eman dutenek larunbateko bazkaria eraman beharko dute soinean, baita igandean mendian egin beharreko hamaiketako ere. Larunbateko afaria, eta igandeko gosaria eta bazkaria ordainduta daude. Iparra, lainoak eta ostarteak espero dira astebururako. Ordu batzuk 2.000 metrotik gora egingo dituzte mendizaleek txangoak, eta arropa egokia ematea gomendatzen du Zanpatuz elkarteak.

Udal ordezkarien iragarpena, bakean eta bizikidetzan sakontzeko

Iragan gatazkatsua ikertuko duen txostena



Ana Carrere alkatea, eta atzean ezker-eskuin Mourinho (Irabazi), Lainez (PSE-EE), Izagirre (EAJ-PNV), Zulueta (EH Bildu) eta Hernandez (Ganemos).

Astearte goizean Udal ordezkari guztien babesa zuen adierazpena irakurri zuen **Ana Carrere** alkateak, Andoaingo udaletxeko batzar aretoan. Harekin batera, agerraldian alderdi guztietako ordezkariak parte hartu zuten: **Jon Zulueta** (EH Bildu) **Maidier Lainez** (PSE-EE), **Marijose Izagirre** (EAJ-PNV), **Olga Hernandez** (Ganemos) eta **Jorge Mourinho** (Irabazi). Euskal gatazka politikoaren baitan eman diren giza eskubideen urraketak ikerzteari ekingo diotela aditzera eman zuten bertan, eta baita txostena egiteko ardura **Argituz Giza Eskubideen Aldeko Elkarte**arena izango dela erantsi ere. Elkarte horrek antzeko lanetan metatu duen esperientzia kontuan hartu dute. Dagoeneko Gipuzkoan hainbat herritan landu ditu antzeko txostenak. Txostena "bizikidetzatza bultzatzeko eta herri mailako memoria politikak lantzeko tresna egokia izan daitekeela" uste dute Udal ordezkariak. 2018an zehar lantzeko asmoa dute.

Agerraldia iragarpen modukoa izan zen, oraindik ere hainbat xehetasun garrantzitsu

zehazteke daude. Txostenean bilduko den garai historikoa zehaztu gabe dago oraindik. Antzaenez, alderdiek Argituz taldearekin batera adostuko dute ikertu beharreko garai historiko zehatza. Eusko Jaurlaritzako Gogora erakundeak, esaterako, "Udal Memoriak. Udal-mailako eremuan memoriari buruzko politika bultzatzea" egitasmoan 1960-2011 garaia aintzat hartzen du. Andoaingo kasuan, ikertu beharreko garaia alderdi guztien adostasunarekin erabakiko dute.

Garaia bezain garrantzitsua izango dira ikerketa gaiak. Alegia, zer da zehazki ikerketa gaitzat hartuko dutena? Astearteko adierazpenean "Hilketak, giza-eskubideen bortxaketak eta gure iragan gertuan gertatutako beste indarkeria ekintzen memoria" jaso nahi dutela adierazi zuten. Agerraldi berean, beste pasarte batean, herritarrak lekukotza zuzena ematera gonbidatu nahi dituztela iradoki zen: "Jabetzen gara txostena gaiak lantzen jarraitzeko abiapuntua izango dela, eta datu berriak eman nahi dituzten pertsonen ekar-

penekin aberasteko aukera egongo da".

BAKEA ETA BIZIKIDETZA

Agintaldi honetan bakegintzan eta bizikidetzan sakontzeko urratsak ematen ari dira. 2015ean jada, ordezkariak handiena duten hiru alderdi nagusiek (EH Bildu, PSE-EE, EAJ-PNV), alor horretan sakontzea lehentasunezko hartu zuten. Azken urteetan, eta nagusiki **Baketik** erakundearen lankidetzarekin, Andoaingo Udala urrats ezberdinak ematen ari da.

2016ko azaroaren 9an, adibidez, joan zen astearteko moduko agerraldia egin zuten. Orduko hartan, "memoria, aitorrena, erreparazioa eta ez errepikatzearen bermea" sustatu behar dela adierazi zuten, Giza Eskubideak urratzeko modu guztiak arbuiatzen zituztela eranstarekin batera.

2017ko urtarrilean bakea eta bizikidetzatza zinema zikloa abiatu zuten "Glencree", "Heriotzaren triangulua" eta "Reconciliación" ikus-entzunezkoak eskainiz.

2018an zehar, iragarri dutenez, memoriaren txostena lantzeari ekingo diote.

Txindokiren urteurrena ospatzeko jaia, larunbatean



Txindoki lantaldea, Santa Krutz jaiaren atarian ateratako argazkian. Ezker-eskuin: Iker, Urru, Kristian eta Sonia. Imanolek eta Kristinak osatzen du lantaldea.

1957ko uztailaren 15ean, Elosegi familiak Txindoki tabernako atea lehen aldiz zabaldu zituen Andoaingo Kale Nagusian. Larunbat honetan bertan irekitze data hartatik 60 urte beteko dira, eta efemeridea behar bezala gogoan hartzeko 2013tik hona tabernaren ardura dutenek festa antolatu dute. Egun osoa izango da, kalean egin nahi dutena. Urru gaur egungo tabernaren arduradunetakoa da, eta Aiurriri jaiaren xehetasunak eskaini dizkio: "Paella jatea, musika, parrillada..., ekitaldi guztiak kalean egingo ditugu. 60 urte ez dira egunero betetzen, eta urte hasieratik ospakizuna antolatzea buruan genuen. Aurten, Santa Krutz jaietan pregoia bota dugu eta ezusteko bikaina izan da. Ez genuen espero".

OSPAKIZUN IREKIA

Bezeroak eta lagunak bezalaxe, Txindokiko arduradunek andoaindarrak, oro har, ospakizunera hurbiltzea nahiko lukete: "Egunean bertan txartelak banatuko ditugu, ez dira alde aurretik hartu beharko. Egur-dian bazkaria eta kontsumizioa eskainiko dugu prezio merkean, eta iluntzeko parrilladarekin gauza bera". Antolatu duten egitarauarekin, larunbateko jaiak Urru eta lankideentzat ospakizunetik gutxi izango duela aitortzen du: "Animatuz joan ginen eta azkenerako egitarau handi samarra atera zai-

"Paella jatea, musika, parrillada..., ekitaldi guztiak kalean egingo ditugu"
Urru

gu. Larunbat gaura leher eginda iritsiko garela uste dut, egitarau osoaren atzetik lan handia baitago. Txindokikook benetako ospakizuna asteartean egingo dugulokoa nago, jai eguna dugunez elkarrekin bazkaltzera joango baikara".

Bodegas Mitarte eta Keler dira jaiaren babesleak. Bodegak, ospakizunerako bereziki, 15 litroko botilzarra prestatu du. Iluntzeko 20:30ean irekiko dute, bezero eta lagunek proba dezaten.

Festa berezia izango da, datozen urteetan segidarik izango ez duena. Beno, Txindokiren 75. urteurrena ez lukete oharkabean igarotzerik nahi. 2032. urtean izango da hori. Bien bitartean, dagoenari eutsi. Larunbat honetako festa udako plan bikaina dirudi.

UZTAILAK 15, LARUNBATA

- 13:00** Txupinazoa, bermut musikala.
- 13:30** Paella jatea.
- 18:00** Mojitoak kalean. Herri taldea zuzenean.
- 19:30** Mojo Hand taldea zuzenean.
- 20:30** Bodegas Mitarteren botilzarraren irekiera.
- 20:45** Parrillada.
- 23:30** Jaiaren amaiera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Salem Saharako haurrari harrera ekitaldia



Udal ordezkariak, Hurriako kideak, Iraola Treku sendia eta Ali Salem haurra.

11 urteko **Ali Salemi** ongietorria egin diote aste honetan, Andoaingo udaletxean. Bi hilabeteko egonaldia egingo du bertan. **Ana Carrere** alkateaz gain **Marijose Izagirre** (EAJ), **Maidar Lainez** (PSE-EE) eta **Olga Hernandez** (Ganemos) zinegotziak, Udaleko Ongizateko teknikari **Ana Sanz**, Sahara-Hurria elkarte-ko **Miren Erkizia**, eta nolaz ez, **Iraola Treku** euren etxean hartuko duten familiako ki-

deak hurbildu ziren ekitaldira. Ali dagoeneko nahiko ezaguna da Andoaingen, etortzen den bigarren urtea baita. Ekainaren 24an heldu zen herrira, San Juan jaien ospakizunak bete-betean zirela, eta irailaren hasiera arte egongo da bertan. Bestalde, Andoaingo Udalak Saharako beste bi haurren udako egonaldia ordaindu du. Haur horiek Tolosako aterpetxean igaroko dute uda.

Ostalaritzan euskara trebatzeko ikastaroa



Andoaingen bizi dira ikastaroa jasotzen ari diren zortzi pertsonak.

Andoaingo Udala eta Banaiz Bagara elkarteak uztailearen 10etik 21era euskararen erabilera praktikoa lantzeko ikastaroa eskaintzen ari dira La Salle Berrozpe ikastetxean. Egutero bi orduz, zortzi pertsona bezeroarekiko hurreman euskaraz landu

ahal izateko ikastaroa jasotzen ari dira. Zortzirak hegoamerikar jatorrikoak badira ere, Andoaingen bertan bizi dira. Uda ikastaroak egiteko sasoi aproposa izaten da. Herrikide hauek euskara sakontzeko aukera egin dute, hamabostaldi honetan.



Egoera errealak lantzen dituzte ikastaroan, goizero bi orduz.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien XXIX. edizioa

Euskal kazetaritzaren sari garrantzitsuena



Zutik, goian, Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiari zuzendutako saria eskuan. Alboan ditu Goiena eta Ortzadar hedabideetako langileak. Behean makurtuta, Iñigo Astiz kazetaria eta Maite Mutuberría ilustratzailea.

Joan zen larunbatean Basteron egin zuten sari-banaketa ekitaldia eta, oraingoan, Ortzadar gehigarria, Eguna egunkaria, Iñigo Astiz kazetaria eta Maite Mutuberría ilustratzailea eta, Goiena Telebistako Kulturriketak saioa izan dira sarituak. Euskadi Irratiko esatari Manu Etxezortu andoaindarrak egin zituen aurkezle lanak.

AIPAMEN BEREZIAK

Noticias taldeak larunbatetara argitaratzen duen **Ortzadar gehigarriak** jaso zuen aipamen berezia, eta, 1937ko urtarrilean kaleratu zen **Eguna egunkariak** bestea. Epaimahaiak Ortzadarrek hogeitaz aste euskarazko literatur eta kultur sorkuntzaren berri euskaraz eman izana azpimarratu zuen. Eguna egunkariari dago-kionez, mugarri izan zelako euskarazko kazetaritzaren premiaren kontzientzia. 1937ko urtarrilean lehen argitaratu zen lehenbiziko aldiz, eta 139 zenbaki egin zituen jarraian, Francoren aldeko indarrek 1937ko ekainean argitaratzen jarraitzeari eragotzi zion arte.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatu Lorea Bilbao jaso zuen saria, bertako artxiboan gordetzen baita zenbaki guztiak biltzen dituen bilduma bakarra.

EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA Iñigo Astiz kazetariak eta Maite Mutuberría ilustratzaileak jaso

zuten, *Kixotenean* izenburua duen erreportaje sortagatik; erreportajeak Berria egunkarian argitaratu ziren lehenbizi, eta liburu batean bildu gerora. Iñigo Astiz "kontalari bikaina, ausarta, orijinala eta zorrotza" dela aipatu du epaimahaiak. Eta zera erantsi, besteak beste: "Kixoteren inguruan egindako sortak bere idazkuntzaren abilezia erakusten du, kazetaritzan bestelako kontatzeko erak posible direla erakutsiz". Mutuberría ilustratzaileak, berriz, "modernotasunez blaitu du Kixoteren bila egindako bidaia-aren kontakizuna".

KAZETARITZA SARI NAGUSIA

Goiena telebistako *Kulturriketak* izeneko saioak jaso du Rikardo Arregi Kazetaritza Saria. "Europako edozein telebistak izan lezakeen saio moderno" da, epaimahaiaren aburuz. "Bizi garen garai bizkorretan pausaldia egiteko aukera

ematen du modu atsegina eta entretenigarria, eta aldi berean arinkeriatik urrun".

KAZETARITZA BERRIA SARIA

27 urtez azpiko kazetarietzat bideratutako saria hutsik uztea erabaki dute aurten, lehiaketara oso lan gutxi aurkeztu zelako.

EPAIMAHAIAREN

Maria Gonzalez, Goizalde Landabaso, Goio Arana eta Xabier Landabideak osatu dute aurtengo epaimahaia, **Ainara Rodriguez** Andoaingo Udaleko Euskara eta langileriako zinegotzia epaimahaiburu izan delarik, eta **Patxi Baztarrika** Udaleko euskara teknikaria, berriz, idazkaria. Ekitaldia osatzeko **Olatz Prat** kantaria saioa eskaini zuen, **Joxan Goikoetxea** musikariarekin batera. Prat kazetaria ere bada, eta hain zuzen Ortzadar gehigarriko hainbat lan egin izan du.



Olatz Prat kantaria Joxan Goikoetxearekin. Pratek Ortzadar gehigarriko kazetari lanetan jardun izan du.

Hanburgesa eta ogitarteko postua jarriko dute, iaz bezala

Karrikan dute hitzordua festazaleek, asteburuan



Karrikako jaien lehen egunean sardina jatea 20:30ean hasiko da, eta gauean rock kontzertua.

Ostiral arratsaldean hasi eta igandera arte ospatuko dituzte Karrikako jaiak. **Oihane Etxaniz, Ana Gaspar, Leonor Plata, Daniel Fondon** eta **Ane Roig** burubelarri dabilta jaien antolakuntzan eta, urtero bezala, egitarau oparoa osatu dute andoaindarrentzat eta, bereziki, Karrikako auzotarrentzat.

Urtero arrakasta izaten duten ekintzak mantendu eta aspaldian egiten ziren zenbait ekintza berriro antolatu ditu Karrikako jai batzordeak. Hala, sargardo dastaketa egongo da larunbatean eta Playback ospetsua igande arratsaldean: "Andoaingo festa guztietan egiten den playback bakarra da", adierazi du Ana Gasparrek.

Gaztetxoek bere tokia izan dezaten, futbol txapelketa infantila izango dute eta danborradan parte hartzeko aukera ere emango zaie. Izan ere, aurtentzen haur eta helduak 20:00tan

aterako dira larunbatean, ondoren afariari ekiteko.

BERRITASUNEN ARTEAN, ROCK KONZERTUA

Berritasun ugarirekin datoz aurtengo festak. Ostiralean, urte askoren ondoren, berriro Rock kontzertu "indartsua" itzuliko da eta Pangea eta Kallean taldeek joko dute: "Urte asko dira Rock kontzertua antolatzen ez zela eta, giro pixka bat jartzeko, aurtentzen antolatzea erabaki dugu". Talde "indartsuen" aldeko apustua egin dute, auzoan arrakasta izan dezan.

Horrez gain, festa guztietan zehar, hanburgesa eta ogitarteko postua jarriko dute iaz bezala. "Lehenengo urtean arrakasta izugarria izan zuenez, aurtentzen errepikatzea erabaki dugu". Aurtentzen, hala ere, jaiak "landuago" egongo direla iragarri dute.

Bestalde, errifak, saskiak, publizitatea, tabernetako laguntza eta mus txapelketa landu dituzte laguntza ekonomikoa jasotzeko. "Jai batzordearen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu urtero-urtero gu laguntzen eta festetan modu aktiboan kolaboratzen duten guztiei". Andoain guztitik laguntza jasotzen dutela eta alde horretatik "pozik" daudela adierazi dute.

HERRITARREI DEIALDIA

Andoaindar guztiei Karrikako festetara gerturatze deialdia egin diete antolatzaileek. "Azken urteotan herriko beste ekintzaren batekin batera egokitzen dira festak. Honenbestez, andoaindarrak auzora gonbidatu nahi ditugu, egindako lan guztiak erantzuna izan dezan". Karrikako auzotarrek ere festez gozatzea da beraien nahia.

San Juan jaietako balorazioa

Balorazio bilera egin zuten Urigainen, joan zen uztailearen 3an. Bertaratutakoek zenbait gai eta ekitaldi hizpide izan zituzten. Ezin izan zituzten ekintza guztiak aztertu ekitaldi horietako antolatzaile asko bilerara agertu ez zirelako.

UDALAREN ESKERTZA

Esti Mujika kultura zinegotziak hartu zuen hitza lehenbizikoz. Pozik egoteko moduko arrazoiak badaudela adierazi zuen, oso parte hartzaileak izan direlako. Eguraldia gora behera, normaltasunez eta isturirik gabe burutu dira ekitaldi guztiak.

Zorionak eman zizkien herriko elkarteetara, herritarrei eta Udaleko kultura saileko langileei, guztiek ere ekitaldien antolaketan egindako ahalegin bereziagatik.

ESKU PROGRAMA

Kultura zinegotziak aitortu zuen esku programa ez dela etxeetan behar bezala banatu, eta hori dela eta, udaletxean kexa ugari jaso direla. Kaltetutako herritarrei barkamena eskatzeaz gain, Udala enpresa banatzailearekin hizketan ari dela adierazi zuen. Zehaztea eskatu baitzaio ea zertan eta zergatik huts egin zuten, hurrengo urteetan behar diren neurri zuzentzaileak ezarri asmoz.

PREGOIA

Alberto Agirre abesbatzaren izenean, Jexus Mari Berazak eskerrak luzatu zizkien aurtengo pregoia egiteko abesbatza izendatu duten herriko elkarteetara eta herritarrei. Abesbatzako kideek une hunkigarriak bizi izan dituztela adierazi zuen Berazak, eta aurrerantzean ere herriko kultur ekimenetan parte hartzeko beti bezain prestu agertuko direla.

Bestalde, Garbiñe Agirre kultura teknikariak jakinarazi zuen, Udaleko kultura saila lanean ari dela pregoilariaren izendapenerako arauak zorroztzeko.

SAN JUAN SUAREN EKITALDIA

San Juan gaueko ekitaldiari dagokionez, bi puntu jorratu ziren. Batetik, oholtzan barandillak jarri izana ontzat eman zen, gau horretan kantari eta musikari ugari igotzen baita bertara. Erortzeko arriskua horrelakoetan benetakoa izaten da. Bestalde, oholtzaren alde banatan pantailak jarri zituzten, eta horrek gaizki uler-

tzeren bat ekarri die zenbaiti. Berez, abestien letrak irakurri ahal izateko asmoz jarri ziren, baina zenbait herritarrek gaueko ekitaldi osoa bertatik ikusi ahal izateko zela ulertu zuten.

PATATA TORTILLAK ETA ARDO DASTAKETA

Herriko elkarte gastronomikoen igandean antolatu zutena, ekitaldi arrakastatsua izan zela aitortu zuten denek. Ardura gehien hartu zuten Andoaindarrak elkarteetara Ivan Gonzalezek eta Santa Krutz jubilatuen elkarteetara Eloi Artolazabalek aurreikuspen guztiak gaitortu zirela adierazi zuten. Elkarteetako kideek elkarrekin nahiko ondo moldatu ziren, eta hurrengo urteetara begira koordinazioan sakontzea beharrezko ikusi dute.

JAI AUZOETARA ZABALTZEA

Bileran aipatu zenez, Andoaindarrak elkartearen danborradaren ibilbidea Santa Krutz ermitaraino iritsi zen, eta txarangek ere ohikoak ez diren auzoetara zabaltu zituzten bere jardunak. Bi ekintza horien harira, bileran ontzat jo zen festa giroa Goikoplazako espaziotik atera eta inguruko auzoetara eramango dituzten ekintzak bultzatzea.

TXIRRINDULARI PROBA

Ia urtero izaten da tirabiraren bat Gipuzkoako Itzuliaren probako podiumaren kokapenarekin. Goikoplazan behar luke izan sari-emate ekitaldia, baina horrek arratsaldean zehar Goikoplazan ospatu ohi diren ekitaldi guztien antolaketan baldintzatuko luke. Horrengatik, sari-ematea Plazola kalean egiten jarraitzea egokitzen jo zuten.

Goikoplazak eskaintzen duen jai gunearain loturik, 2018an, larunbatarekin egokituko da San Juan bezpera, eta beraz, ekitaldiak antolatzeko garaian kontuan hartu behar da su hartuko duen meta erdi-erdian ezarrita egongo dela egun osoan zehar.

EGURALDI TXARRA

Eguraldia petraldu egin zen hainbat unetan, ekitaldi solte batzuk tokiz aldatzeraino: Bakartxo&Joseba dantza eskolaren erakustaldia, dantza saio erraldoia eta haur danborrada. La Salle ikastetxe jolastokira eraman zen lehena eta Ondarretara bigarrena, baina hirugarren kasurako alternatibarik ez zen aurreikusi.

KARRIKAKO JAIK

Uztailak 14, ostirala:

- 19:00 Jaietako hasiera emateko txupinazoa.
- 19:15 Zumalokura saioa Susana eta Iratiren eskutik.
- 20:30 Sardina jatea.
- 22:30 Rock kontzertua: Pangea, Kallean.
- 02:00 DJ Tristan.

Uztailak 15, larunbata:

- 10:00 Futbol txapelketa. Gehieneko adina 14 urte.
- 12:00 Puzgarriak eta apar festa.

12:30 Sagardo dastaketa.

16:00 Mus txapelketa, bikoitza. 20 euro.

16:00 Puzgarriak eta apar festa.

20:00 Danborrada eta afaria Karrika elkartearen.

23:30 DJ Tristan. Ondoren, pepino lehiaketa.

Uztailak 16, igandea:

11:00 Hildakoen aldeko meza, Sorabillan.

12:00 Toka txapelketa.

12:00 Marrazki lehiaketa. Marrazkietako bat 2018ko jaiak iragartzeko erabiliko da.

12:30 Patata tortilla lehiaketa. Jai batzordearen esku: patatak, arraultzak eta tipula.

12:30 Paella lehiaketa.

Jai batzordearen esku: arroza, tipula, piperra eta oilaskoa. Paella handi bat ere egingo da, errazio bakoitza 1,5 eurotan salduko dena.

18:30 Playback saioa.

19:30 Jumping eta Zumba.

20:30 DJ Tristan.

23:00 Jaietako amaierako azken traka.

HEZKUNTZA

Irakasteko eta ikasteko modu alternatiboari saria

Josune Iñarra eta Leontxo Valverde Leizaran institutuko irakasleek, “ikasten ikasi eta egiten ikasi” filosofia oinarrian duen pedagogia lantzen dute Leizaran ikastetxean, 15-16 urteko ikasleekin.

Beren proiektuetako batek Santillana argitaletxeak estatu mailan antolatzen duen sarietako bat irabazi berri du; proiektuaren sormena eta berrikuntza nabarmendu dute.

“Baratzatik... platerera” nabarmendu du hain zuzen DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa mailako proiektuak kontuan hartzen dituen sariketak. Urrian Madrilen egingo den ekitaldian banatuko da saria. Baratza ekologikoa eta elikadura iraunkorretik abiatuta, eta ikastetxeak eskaintzen dituen ikasgaiak eta baliabideak erabiliz, ikasleek bizitzari buruz daukaten ikuspegia zabaltzea eta bizitzan moldatzeko tresna praktikoak edukitzea izan da “Baratzatik... platerera” proiektuaren helburu nagusia. Proiektu egingarrietan oinarria duen pedagogia alternatibo horren erakuslerik argigarriena izan daiteke “Baratzatik... platerera”.

Iñarra eta Valverde irakasleek ikasturtean zehar eta astean arratsalde batez, baratzea, sukaldea eta garapen iraunkorra batzen dituen tailerra garatu dute ikasleekin, eguneroko jardunak norberaren osasunean eta ingurugiroan daukan eraginean indarra jarritz.

Hiru taldetan banatu dute klasea. Lehenengoaren ardurak baratzearen mantenua, lur zatia egokitzea eta jorratzea, ureztatzea, konposta egitea... izan dira. Bigarrenengoak, baratzearentzat instalazioak (ur bilketa sistema, hazitegia eta negutegia...) diseinatu eta eraiki behar izan ditu; eta hirugarrenengoari, azkenik, sukaldeko lanak (errezetak bildu, platerak prestatu, errezeten liburuia idatzi...) egokitu zaizkio.

Funtzio horiek betetzeko ikasleak txandaka aldatzen joan dira, eta modu autonomoan funtzionatu dute. Irakasleek bideratzaileen lana egin dute, batez ere.

Nahikoa zehaztu dute funtzionamendua. Astez aste, denak bildu eta hainbat zeregin egin dituzte: astean prestatutako jakiak probatu eta baloratu, produktuak guraso eta irakasleen artean saldu, egindako lanei buruzko kontaketa egin, ikasle bakoitzaren errendimendua aztertu, sartu ahal izan diren gatazkak konpondu, hurrengo astea planifikatu (baratzearen mantenua, erosketak, aurrekontua aztertu...).

Hainbat helburu ezarri dituzte proiektu honen bitartez. Besteak beste: motibazioa eta ekintzailetasuna indartu; talde lana garatu, ideiak elkar trukatu; ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta ardurak bere gain hartzeko gaitasunak garatu; pentsamendu



Josune Iñarra eta Leontxo Valverde irakasleak, bere zenbait ikasleekin (Iker Maiza, Jon Garcia, Jazmin Caiza eta Alba Cerrato) batera, Andoaingo udalerrria eta inguruak jaso dituen maketaren ondoan. Maider Arrietekin batera landu zuten maketa.

zientifikoa, kritikoa, soziala eta kulturala garatu; pentsamendu logiko-deduktiboa garatu; arazoak konpontzeko estrategiak garatu; baliabide teknologiko ezberdinak erabiltzen ikasi (bideogintza argazkigintza, interneta...); lur planetari zor zaion errespetua garatu, bizi iturri den heinean.

“ERROMATIK MUNDURA ETA MUNDUTIK ANDOAINERA”

Ikasleekin garatu duten beste proiektuetako bat izan da, Erromatar Inperioa gaitzat hartuta. Erromarako bidaia jomugatzat hartuta, ekimen ezberdinak prestatu dituzte. Zenbait eduki eta balio landu dituzte era horretan: giza eskubideen defentsa, kultura, hezkuntza, ingurumena eta osasuna. Eduki horiek lantzeko, makina bat ekimen egin dituzte ikasturtean zehar: Erromako patrizio-etxe baten maketa egitea eta bere ezaugarriak azaltzeko bideo bat editatzea, ikasketa-bidaia antolatzea; turismo-gida osatzea; bidaiaren egunerokoa egitea; enpresa kooperatibo bat sortzea;

kulturartekotasun-jai antolatzea; Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailasokin “Maite zaitut” abestia hainbat hizkuntzatan grabatzea...

Eguneroko bizitzarako baliagarriak diren ekintzak egitea da Leizaran ikastetxean aplikatzen duten irakaskuntza mota honen azken helburua, eta konparazio batera, enpresa kooperatiboa sortzearen ekimenaren bidez, ikasleek hainbat gaitasun jorratu ahal izan dituzte. Ikasketa-bidaia finantzatzeko batarra landu eta bertako produktuekin sukaldean ekoiztutako jakiak salmentan jarri dituzte, eurek egindako beste zenbait produktu ere (kamisetak, bitxiak, zozketa-txartelak...) saldu dituzte, eta horiek eta kudeatzeko kontabilitatea egin behar izan dute.

ANDOAIN EZAGUTZEN

Andoaingo herria goitik behera aztertu dute ikasturte honetan garatu duten beste proiektu bati esker. Andoaingo historia, kultura, geografia... Izan ere, irakasleak ohartuta zeuden ikasleek zein

nen gutxi ezagutzen duten beren herria, nahiz eta bertan jaio eta hazi.

Horrela, Andoain gaitzat hartuta, zenbait atal hautatu dituzte: pertsonaje esanguratsuak, eskulturak, horma irudiak, eraikuntzak, garapen demografikoa, bertako espazio naturaleko landarerria eta zuhaitzak... Adibide bat jartzearren, kale batek Martin Ugalde izena eramatea nahiko aitzakia izan dute idazlearen bizitza, idazlanak edota euskara eta euskal kultura jorratzeko.

Proiektuaren amaieran, Andoain ezagutzeko ibilbide turistikoa antolatu dute, liburuxka bat egiteaz gain. Eta aldi berean, Andoaingo herri eta ingurua biltzen duen maketa atondu dute, eskala txikian. Ahalegin berezia egin dute ikasleek herriko elementu guztiak bertan egon daitezkeen eta azkar batean identifikatu daitezkeen. Txukuna da maketa, eta Iñarra eta Valverde irakasleak etorkizunean erakusketaren batean jartzeko aukera aztertzen ari dira, herriko ikasleek egindako maketa ikus dezaten.



KIROL ALBISTEAK

Sari bikoitza senior mailako eskubaloari

Senior gizonezkoen taldeak bi sari eskuratu ditu aurtengo denboraldiaren amaieran: Kiroltasunarena talde osoak eta goleatzailearena Javi Rodriguez jokala-

riak. Bi sariak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak Errenterian joan zen ekainaren 8an antolatu zuen jaialdian jaso zituzten.


Leizaran eskubaloi taldeak zuzendaritza berria du, eta bere kideetako bat **Iñigo Sarasola** da. Andoaindarrarentzat “bi sari horiek jasotzea benetan garrantzitsua dela iruditzen zaigu, oso ongi adierazten dutelako Leizaran klubaren filosofia: arauak errespetatuz eta garbi jokatzuz arrakasta eduki daitekeela. Gainera, bi sari hauek senior mailako talde batek jaso ditu, eta garrantzitsua da hori. Izan ere, maila horretako taldeak eta jokalariek baitira adin txikiagoko jokalarien erreferentzia nagusiak”.

Kiroltasunaren saria nori eman erabakitzeke garaian, denboraldian zehar gertatu diren hainbat xehetasun hartzen dira kontuan: txartel gutxienez jaso izana, kaleratze gutxi eduki izana, aurkariari, epaileari eta ikusleei errespetua erakutsi izana...

Javi Rodriguez jokalaririk, bestalde, 22 partidatan 178 gol sartzeagatik goleatzailearen saria jaso zuen. Zorrotz ibili da Rodriguez aurkariaren atearen aurrean, batzaz beste partida bakoitzeko zortzi gol sartu baititu. Ez da antzeko saria jaso duen lehendabiziko aldia, 2013-2014 denboraldian ere sartutako gol guztiengatik nabarmendu baitzen.

Bi sari horiek egindako lanaren aitormen gisa hartu ditu senior mailako taldeak, denboraldi polita osatu baitu. Ligan bikain aritu ostean, igoera fasean parte hartzeko atarian geratu da.

Goi-goian aritu diren Leizarango taldeak aipatzen hasita, ezin bazterrean utzi nesken infantil mailako taldearen balentria, Gipuzkoko laugarren geratu baita. Taldeko bi jokalarik,



Imanol Alaña senior taldeko kapitaina, **Iñigo Sarasola** entrenatzailea, **Javi Rodriguez** goleatzailea eta **Imanol Sarasola** zuzendaritza batzordeko kidea, bi sariak eskuetan dituztela.

Itxaro Aizpurua eta **Ane Izagirre**, Gipuzkoako selekzioarekin aritzeko hautatu dituzte.

FAMILIA GIROKO TALDEA

Jokalariek, entrenatzaileek, zuzendaritzako batzordekideek eta gurasoek armonia oneko familia osatzen dute Leizaran eskubaloi taldean.

Rodriguez goleatzailea jokalaria ez ezik, kadete mutilen entrenatzailea ere bada. Leizarango taldearen filosofia eta jarduna ondo baino hobeto deskribatzen du: txiki-txikitandik hasi eta maila guztietatik

igaro ondoren, eta hori ez ezik eta atzetik datozen eskubaloiari pilatu duen eskarmentua erakusteko konpromisoa hartu duena.

HAMAHIRU TALDE, BERREHUN JOKALARI

Hamahiru talde ditu Leizaranek gaur egun, nesken eta mutilen mailatan banatuta; guztira, 195 jokalarik. Gainera, hamalaugarrena osatzekotan dira hurrengo denboraldiari begira. Biziki zaintzen du eskubaloi Andoainen Leizaranek, eta Gipuzkoan bizpahiru talde baino



Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea, aurreko denboraldiaren hasieran.

Bi sari hori egindako lanaren aitormen gisa hartu du senior mailako taldeak, denboraldi polita osatu baitu


ez dira kopuru horietara irits daitezkeenak.

Jendeak egunegun erakusten duen konpromisoari esker lortu izan du Leizaranek sendotasun hori, eredugarri dena Gipuzkoako eskubaloiaren esparruan.

Talde bakoitzak bi entrenatzaile behar izan ditu, eta ezinean ibili ohi dira urtero kargu horiek beteko dituzten pertsonak topatzeko. Hurrengo denboraldiari begira ere badakite eginahaletan ibiltzea egokitu zaiela. Esate baterako, Iñigo Sarasolak esana du utzi egingo duela Senior mailako taldearen ardura; “hogei urte daramat klubean, jokalarik eta entrenatzaile gisa. Goiz ala berandu nekatu egiten da bat, eta uzteko ordua iritsi zaidala sentitzen ari naiz”.

Urtetan behe mailako entrenatzaile izan zen **Imanol Alaña** ere badaki zeinen gogorra den jokalarik eta entrenatzaile izateari aldi berean. “Astean zehar arratsalde-ilunabarrak bi taldeen entrenamenduetan igaro ostean, asteburuak ere bi partiduei eskaini behar dizkiezu. Lagunekin edo familiarekin egoteko denborarik ez zaizu geratzen. Bizimodu hori luza-roan eramatea ez da erraza”. Entrenatzaileen premian da Leizaran, eta deialdia luzatu die jokalariei, jokalarik ohie, gurasoei eta, oro har, eskubaloi zaleetuei talde bat entrenatzeko ardura har dezaten.

G2Haundiak mendi lasterketa



Urtzi Fernandez andoaindarra.

G2HAUNDIAK

52	13:55:35	Tomax Pellejero
98	15:26:56	Urtzi Fernandez
142	16:12:15	Iker Beloki

Igerilarien denboraldi amaiera



Buruntzaldea IKT taldeko kideak.

Tolosako Usabal kiroldegian Euskal Herriko Alebilen Udako Txapelketa ospatu zen aurreko asteburuan. Gure igerilariak gogotsu hartu zuten parte, Buruntzaldea IKT taldekoen esanetan “urte guztiko lanaren fruituak jasoz”. Lehiaketan aritu ziren taldekideen artean **Nerea Santos** urnietarra eta **Eneko Elizasu** andoaindarra zeuden.

Erremontea

Promesa mailako San Fermín lehiaketan Goikoetxea V eta Martiarena parte hartzen aritu dira, finalerako sailkatuz.

